

KANALAK

Kanalen artean hiru hauek bereiz ditzazkegu: komunikazio kanalak, banaketa kanalak eta salmenta kanalak. Guk erabiliko duguna, komunikazio kanala da bezeroei gure produktua iristeko. Gure bezero gehiengoak, diru arazoak ez dutenak, etxeko lanak egiteko denborarik ez dutenak edo ez dituztela gustuko dira. Beraz haiekin komunikatzeko hainbat modu aukeratu ditugu.

Alde batetik, sare sozialen bidez izango da. Gaur egun sare sozialak eragin handia dute eta komunikazio eta marketing tresna oso eraginkorrak dira gure proiektua zabaltzeko.

Bestetik, web orri bat sortuko dugu, bezeroak sartzeko eta interneten bidez erosteko. Bere ezaugarriak, funtzionamendua, prezioak eta erabiltzaileak agertuko dira, bezeroek behar duten informazioa edukitzeko.

Beste modu bat komunikatzeko, zentro komertzialetan agertzen diren kanpoaldeko pantailetan gure robota agertzeko. Honen bidez, erosleen atentzioa lortuko dugu eta interesa dutenek informazio gehiago bilatuko dute gure web orrian.

Azkenik, teknologia azoka batean parte hartuko dugu, konkretuki “Tech Week”, gure proiektua aurkezteko. Parte hartzean, gure robota zuzenean xede-publikoari aurkezteko aukera izango dugu eta inbertitzaile eta laguntzaileekin harremanetan jartzeko aukera izango dugu.

Bezeroek gure produktua erosteko, Media Marken bidez eta web orriaren bidez erosi ahalko dute. Entrega 48h-etan izango da eta robota 18 hilabeteko garantia izango du, baina soilik produktuak arazoak ematen baditu edo gaizki iristen bada, hau da, bezeroari erortzen bazaio edo bere erruz puskatzen bada, ez da garantian sartuko.